

# Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren I. Ekintza Plana

## Tarteko ebaluazioaren txostena

2012ko iraila

Werecat4 | 21 | Text box on slide 2:

### Aurkibidea:

	Or.	
0. Fitxa teknikoa		3
0.1. Sarrera	4	
0.2. Metodologia		4
0.3. Aztergaia	6	
0.4. Zereginen kronograma		7
• Diseinu- eta egitura-ebaluazioa		8
1.1. Barne-faktorea		10
1.2. Kanpo-faktorea		23
1.3. Kontrol-koadroa eta hobekuntzak		27
• Ezarpen-ebaluazioa	29	
2.1. Planaren inplementazioa eta garapena		31
2.2. Aurrerabide-txostena	47	
3. Kudeaketa-sistemaren ebaluazioa		63

3.1. Indarrak	65	
3.2. Oztupoak	70	
3.3. Kontrol-koadroa eta hobekuntza-elementuak		84

# 0. Fitxa teknikoa

## 0. Fitxa teknikoa

### 0.1 Sarrera

Proiektu hau Kualitate Lantaldea aholkularitza-enpresari eskatu zaio, eta helburu hauxe du: **Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren Ekintza Plana ebaluatzeko beharrari erantzutea, Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak (GIBLZ) planteatu baitu hori.**

Werecat10 | 13 | Text box on slide 4:

**Tarteko Ebaluazio** batetik abiatuta egiten da Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren I. Ekintza Planaren aurreneko jarraipen hau, eta **Planeko programei eta ekintzei buruz bildutako informazio eta datu guztien azterketa kritiko bat** da ebaluazioa. **Eredu honi esker**, ezarritako helburuak zer neurritan ari diren iristen jakin da.

**Ebaluazio honek hiru gauza hauek nabarmentzen ditu:** martxan den **esku-hartzearen baliozkotasuna; hasieran aintzat hartutako helburuen egokitasuna**, eta Planeko programen, proiektuen eta ekintzen **kudeaketa-, koordinazio- eta jarraipen-sistemaren kalitatea eta funtzionamendua.**

Gainera, **ebaluazio** honek dokumentu argitzaile bat izan nahi du, garatutako eta ebaluatutako prozesuen eta neurrien **hobekuntzan eta doikuntzan zentratutako** dokumentu bat.

Prozesuak hiru fase ditu:

1. Planaren diseinu- eta egitura-ebaluazioa
2. Ezarpenaren eta garapenaren ebaluazioa
  - 2.1 Azterketa kuantitatiboa
  - 2.2 Aurrerabide-txostena
3. Kudeaketa-sistemaren ebaluazioa

## 0.2 Metodologia

# 0. Fitxa teknikoa

Werecat14 | 19 | Text box on slide 5:

### A. Planaren diseinuaren eta egituraren ebaluazioa

Azterketa horri esker, **Planaren barne-antolamendua** ezagut daiteke, hots, haren osagai nagusien azterketa eta definizioa, eragile bakoitzaren garrantzia, lehentasunezko garapen-ildoak, Planak beste politika batzuetan duen eragina..., eta, horrela, aztertutako planifikazioaren gabeziak eta ahuleziak detekta daitezke, eta, gainera, Planaren egiturako eta diseinuko bikoiztasunak, hutsuneak eta inkoherentziak ikus.

Erabili beharreko teknikak eta tresnak:

Ebaluazio honetan, Desk Research teknika (bulegoko lana) erabili da. Haren bidez, Planaren egitura aztertu da, abiapuntu gisa hauek hartuta: bi ikerketa-faktore (barnekoa eta kanpoko), 9 azterketa-aldagai eta 40 kontrol-adierazle baino gehiago.

### B. Ezarpenaren eta garapenaren ebaluazioa

Planifikazioan garatutako neurrien betetze mailaren azterketa

Erabili beharreko teknikak eta tresnak:

Informazioa biltzea, Planeko neurrien betetze-arduradunekin galdetegiak eta elkarrizketa sakonak erabilia.

✓ Informazio kuantitatiboa (ebaluazio-fitxa batetik abiatuta), ekintzen betetze mailaz, izan diren aurrerapenak islatzen dituzten gauzatze-adierazleak baliatuta.

✓ Informazio kualitatiboa (talde-dinamiketarik eta/edo elkarrizketa sakonetatik abiatuta), ezarpenaz, Planaren bilakaeraz, ...

# 0. Fitxa teknikoa

### C. Kudeaketa-sistemaren ebaluazioa

Prozesu jarraitu batean batutako etapa multzo bat. Prozesu horri esker, modu ordenatuan lan daiteke ideia bat, eta hobekuntzak eta jarraipena lortu arte Plana nola kudeatzen eta betetzen den azter.

Erabili beharreko teknikak eta tresnak:

✓ Politikoki eta teknikoki ardura duten pertsonen elkarrizketa sakonak egitea.

### 0.3 Aztergaia

Werecat19 | 12 | Text box on slide 6:

- Ebaluatu beharreko plana: Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren I. Ekintza Plana
- 2011-06-07ko Gobernu Kontseiluaren akordio batez onartua
- Ebaluazio-aldia: 2011 (\*).

---

\* (*Ohar metodologikoa*). Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren I. Ekintza Plana, iaeko ekainean onartu zen arren, 2011 osoan ari dira garatzen.

urt. 12

abe. 4

ots. 3

ots. 26

mai. 31

abe. 5

Prozesua 2011ko abendutik orain arte egin da, jarraian zehazten den egutegiari jarraituta.

### 0.4. Zereginen kronograma

# 1. Diseinu- eta egitura-ebaluazioa

## Diseinu-eta egitura-ebaluazioa

✓ **XEDEA:**

Jarraian garatu behar den azterketari esker, Genero Indarkeriaren aurkako Eusko Jaurlaritzaren I. Ekintza Plan horrek daukan antolaketa (barne- eta kanpo-koherentzia) ezagutuko dugu. Horrela, aztertutako planifikazioaren indarrak, gabeziak eta ahuleziak detekta daitezke, eta Planeko egituraren eta diseinuan diren bikoiztasunak, hutsuneak eta barne-inkoherentziak ikus.

- ✓ Honako hauek dira egitura-ebaluazio horretan erabili behar ditugun azterketa-parametroak:

### BARNE FAKTOREA

Arkitektura eta neurtzea

Diagnostikoaren garrantzia

Esku hartzeko ildoaren egokitasuna

Helburuak egokitzea

Ekintzen egokitasuna

Adierazleen eraginkortasuna

### KANPO FAKTOREA

Eskumenak zedarritzea eta arau-esparrua

Planaren norainokoaren eta profilaren definizioa

Koordinazio-egiturak

Werecat35 | 10 | AutoShape on slide 10:

## 1.1. BARNE FAKTOREA

### 1.1.1. Arkitektura eta neurtzea

Azterketa-aldagaiaren definizioa:

Planaren arkitekturarekin dago lotuta egitura-ebaluazio batean egin beharreko lehen azterketa. Aipatu azterketaren bidez, diagnostiko bat egiten da Planaren

barne-antolaketa (Planaren osagai nagusien azterketa, eragile bakoitzaren garrantzia, lehentasuneko garapen-ildoak...) ezagutzeko. Horrela, aztertutako planifikazioaren gabeziak eta ahuleziak detekta daitezke.

#### ALDAGAIAREN BALIOESPEN OROKORRA:

Oro har, Planaren arkitektura (egitura-osagaiak) eta oreka egokiak dira, baina Plana eraginkor bihurtzeko mekanismoetan (ekintza-fitxak) dago aurrera egin beharra.

## Diseinu- eta egitura-ebaluazioa

Adierazleak	Balioa	Azalpena
Ardatzak, helburuak eta neurriak orekatzea	ERTAINA	Oreka garrantzitsua, nahiz eta batzuetan badiren aldeak arduak eta helburukako ekintza-banaketetan. Egoera hori ez da jotzen negatibotzat, esku-hartze publikoko lehentasuna adierazten baitu (adibidez, 1. ardatza). Arreta horrek Planeko ekintza guztien % 61 kontzentratzen du.
Plana osatzen duten osagai guztien presentzia	ERTAINA	Plana osatzen duten osagai nagusi guztiak ageri dira. Planifikazioaren garapenean inplikaturako Sailen aurrekontu batzuen gabezia nabaritzen da soilik.
Ekintzen kudeaketarako tresnaren eraginkortasuna	APALA	Plana 9 esku-hartze fitxaz dago osatuta, eta diren 9 helburu estrategikoekin daude lotuta zuzenean fitxok. Halere, ez da fitxa independente bat Planeko ekintza bakoitzeko, eta ez dira, beraz, zehazten haren helburu operatiboak, haren ebaluazio-adierazleak, haren kronograma, ekintzaren beraren deskribapena... . Egoera horrek modu berezian zaildu du azterketa, eta etorkizuneko planifikazioetan hobetu beharreko funtsezko osagai bat da.

Werecat38 | 21 | AutoShape on slide 11:

**Honako hauek dauzka Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren I. Ekintza Planak:**

Planaren egitura-osagaiak banatuta, ederki ikus dezakegu zein diren Genero Indarkeriaren aurkako I. Euskal Ekintza Planaren planifikazioaren zutarrak.

Goiko taulan erakusten dugun azterketaren ondoren, esan dezakegu Plana egitura-eredu batean dagoela oinarrituta, eta 3 ardatz edo lan-eremu, 9 helburu estrategiko eta 65 neurri dituela.

Jarraian, Planaren egituraren diagnostiko bat garatzen da, jatorrian planifikatutako ekintzekin zuzenean lan eginez.

EGITURA OSAGIAK	ZENBAKETA	EDUKIAK
<b>ARDATZ ESTRATEGIKOAK</b>	<b>3</b>	Ardatz estrategikoak identifikatzeak esan nahi du Genero Indarkeriako Euskal Plana eduki tematiko homogeneo eta funtzionaletan egituratzea erakunde-ikuspegitik.
<b>HELBURU ESTRATEGIKOAK</b>	<b>9</b>	Plana osatzen duten neurrien helburu operatiboak iristeko definitutako helburu orokor estrategikoak.
<b>NEURRIAK</b>	<b>65</b>	Planean definitutako ildo nagusiak iristeko definitutako ekintza espezifikoak. Egitura-azterketako detektatutako unitaterik txikiena da.
1. ARDATZA: GENERO INDARKERIAREN BIKTIMENTZAKO ARRETA	41	63%
2. ARDATZA: ERAKUNDEEN KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA	7	11%
3. ARDATZA: GENERO INDARKERIAREN SENSIBILIZAZIOA, PREBENTZIOA ETA IKERKETA	17	26%

# Diseinu- eta egitura-ebaluazioa

Egindako balioespenaren ondoren, arkitekturaren eta neurtzearen ebaluazioarekin lotutako azterketa nagusiak aurkezten dira jarraian:

- ✓ Genero Indarkeriaren aurkako I. Euskal Ekintza Planak hiru ardatz estrategiko ditu:
- ✓ **Lehen ardatza**, genero-indarkeriaren biktimentzako arreta, hiruetan garrantzitsuena da, **Planeko ekintzen % 63 biltzen baitu**.
- ✓ **2. ardatzak**, erakundeen koordinazioak eta lankidetzak, Planeko **7 neurri** jasotzen ditu, eta **3. ardatzak**, hots, genero-indarkeriaren inguruko sensibilizazioak, prebentzioak eta ikerketak, **17 neurri**.

## HELBURU OPERATIBOKAKO EKINTZA MAPA

<b>1.1. helburu operatiboa.</b> Biktimek dituzten eta aurre egin behar dieten benetako arazoan jakitun izatea, arreta hobea emateko. Genero-indarkeria jasaten duten emakumeen biktimizazio bikoitza saihestea.	2	3%
<b>1.2. helburu operatiboa.</b> Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako arreta eta informazioa hobetzea. Edozein genero-indarkeria mota jasaten duten emakumeen arretan detektatutako gabeziak betetzeko formulak bilatzea. Egungo baliabideak optimizatzea.	22	34%
<b>1.3. helburu operatiboa.</b> Genero-indarkeriaren alorreko legezko neurriak betetzen direla zaintzea. Salaketarekiko edo edozein laguntza-eskerekiko beldurra gainditzen laguntzea emakume biktimei.	7	11%
<b>1.4. helburu operatiboa.</b> Genero-indarkeriako kasuetarako arreta- eta jarduera-protokoloen hedadura geografikoa handitzea, hura Euskal Autonomia Erkidegoko geografia osora zabaltzen dela. -- ezartzen dituzten erakunde publikoen eta pribatuen kopurua handitzea.	10	15%



<b>2.1. helburu operatiboa.</b> Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei laguntza hobea emateko Erakunde arteko II. Hitzarmenaren Jarraipen Batzordean parte hartzea, Idazkaritzan jardunda. Koordinazio eta Jarraipen Batzordea gidatzea.	3	4,6%
--	---	------

## Diseinu- eta egitura-ebaluazioa

### HELBURU OPERATIBOKAKO EKINTZA MAPA

<b>2.2. helburu operatiboa.</b> Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean genero-indarkeriaren biktimentzako arreta koordinatzeko mekanismoei buruzko sail arteko Batzordea gidatzea.	1	1,5%
<b>2.3. helburu operatiboa.</b> Genero-indarkeria desagerrarazteko lan egiteko autonomia-erkidegoaren eta Estatuaren mailan eratutako organoetan parte hartzea.	3	4,6%
<b>3.1. helburu operatiboa.</b> Genero-indarkeriaren aurkako «zero tolerantzia» sustatzea. Erakunde guztien inplikazioa bultzatzea genero-indarkeria gaitzesteko eta haren aurka borrokatzeko.	7	10,7%
<b>3.2. helburu operatiboa.</b> Informazioa biltzeko eta homogeneizatzeko sistemak hobetzea. Azterlanak eta ikerketak egitea.	10	15,3%

1.2 helburu operatiboak **kontzentratzen du Planeko neurrien kopururik handiena** (% 34), eta genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeei arreta emateko dira nagusiki neurriok.

**3.2. eta 1.4 helburu operatiboek Planeko ekintzen % 30** biltzen dute; jokaera bortitzen prebentzio-neurriekin daude lotuta ekintzok lehen kasuan, eta, bigarrenean, genero-indarkeriako kasuetarako arreta- eta jarduera-protokoloak eratzea eta betetzea sustatzearekin.

2.2 helburuak ekintza bakar bat jasotzen du, eta genero-indarkeriaren alorreko Eusko Jaurlaritzaren politika koordinatzean zentratzen da haren helburu estrategikoa.

## Diseinu- eta egitura-ebaluazioa

### AURREKONTUA

Jarraian, 2011rako aurrekontu aurreikuspenari buruzko datuak aurkezten dira, planean inplikaturik dauden sailletako bakoitzarekin lotuta. Aipagarria da aurrekontu-partida jasotzetik kanpo gelditu direla Planean ekintzak ezarri zaizkien Sail batzuk: Enplegua eta Gizarte Gaiak; Etxebizitza eta Herri Lanak; Industria; Kultura; Ekonomia; Ingurumena, eta Lehendakaritza.

#### 2011RAKO AURREKONTU AURREIKUSPENA SAIL BAKOITZEAN (\*)

Inplikaturikotako saila/zuzendaritza	Dagokion aurrekontua
GIBLZ	2.275.587 €
Emakunde	619.000 €
Osasun eta Kontsumoa eta Osakidetza	160.000 €
Justizia	2.195.996 €
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila	76.899 €

## Diseinu- eta egitura-ebaluazioa

(\*) Ikus Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren I. Ekintza Planaren 73. eta 74. orrialdeak.  
Werecat65 | 14 | Placeholder on slide 15:

### 1.1.2. Diagnostikoaren garrantzia

#### Azterketa-aldagaiaren definizioa:

Teknikoki «egoeraren diagnostikoa» deritzanaren xedea zera da, ongi aztertzea hobetu nahi den arazo multzoaren egoera, proposaturiko den esku-hartzea ahalik eta egokiena izan dadin eskari sozialari erantzuteko.

## ALDAGAIAREN BALIOESPEN OROKORRA:

Egoera-diagnostiko labur eta zuzena da, eta behar den heinean zehazten eta definitzen du zer esparrutan esku hartu behar duen administrazio publikoak genero-indarkeriaren alorrean.

Halere, planaren dokumentuan ez da aipatzen, inon ere, indarkeria mota hori jasaten duten emakumeen beharrak, iritziak eta pertzepzioak biltzeko sortutako eskariari erantzuteko gizarte-partaidetzako prozesua.

## Diseinu- eta egitura-ebaluazioa

Adierazleak	Balioa	Azalpena
Azterketa-unibertsoa zedarritzen du, gure gaia definitzen.	Handia	Modu argi eta zehatzean egiten du. Oinarrizko kontzeptuak zehazten ditu, eta haien esanahia.
Aztergaiaren ezaugarritzea garatzen da.	Handia	Indarkeriaren biktima diren emakumeen funtsezko ezaugarriak definitzen ditu.
Fenomenoaren edo arazoaren kausa eta jatorria azaltzen ditu.	Ertaina	Ia ez da ageri erreferentziarik diagnostikoaren atalean; halere, garatzen dira indarkeriari buruzko eduki batzuk Planaren sarreran.
Planifikatzeko balio du; esku hartzeko guneak definitzen ditu. Arazoak definitzen ditu, eta zuzen egiten du hori.	Ertain-handia	Diagnostikoak behar beste zehazten du, funtsezko datu batzuen bidez, zein gunetan esku hartu behar den.
Esku hartzea funtsatzen eta justifikatzen du.	Ertain-handia	Detektatutako arazoetan jarduteko arrazoiekin lotutako edukiak aurkezten ditu dokumentuak.
Datu erabilgarrien presentzia	Handia	Datu garrantzitsuak aurkezten dira, hondar-daturik edo planifikaziorako interesik ez duten elementurik gabe.
Badira eboluzio-elementu batzuk.	Handia	Diagnostikoaren dokumentuan, azken hamarkadako eboluzio-datuak

Beste lurralde, eskualde... batzuekiko konparazio-esparru bat egiten da (orientazioen/joeren txostena).	Apala	aurkezten dira. Soilik Estatu mailako datu solte batzuk aurkezten dira, beste erkidego batzuk aipatu gabe.
Aurrekariak aurkezten ditu eta/edo aurreko planen edo jardueren ebaluazioen datuak.	-----	Ez dagokio, genero-indarkeriaren aurka borrokatzeko Eusko Jaurlaritzak egindako lehenengo ekintza-plana baita.
Bada eskaria jasotzeko biderik. Diren gizarte-beharren azterketa.	Ertaina	Oraingoz, bederen, Planean ez da detektatzen mota horretako prozesurik, zeinak erreferente gisa balio balezake lehenengo planifikazio honetarako.
Diren edo praktikan ipini diren baliabideen mapa	Ertain-handia	Diagnostikoaren idazketan, ez dira behar beste zehazten eta definitzen genero-indarkeriaren aurka borrokatzeko diren bitartekoak eta baliabideak. Halere, baliabideei eta jardueri buruzko datu horiek bai dira agertzen helburu estrategikoen fitxei laguntzen dieten informazioa eta arrazoiak aztertzen ditugunean.

## Diseinu- eta egitura-ebaluazioa

Adierazleak	Balioa	Azalpena
Ildoen eta egoera-diagnostikoaren arteko egokitze maila.	ERTAINA	Oro har, Planeko hiru ardatzek ongi jasotzen dituzte bai diagnostikoan eta bai aurreko testuinguruan-kokatzean definitutako arazoak. Azterketa sakon batean, ordea, gabezia batzuk igartzen dira 2. eta 3. ardatzetan. 2. ardatza: ez da diren koordinazio-egituren hasierako azterketarik; ez eta beharren diagnostiko zehatzik ere, esku-hartzea eraginkorkiango orientatzeko. 3. ardatzari dagokionez, interesgarria izango zen genero-indarkeriari buruz diren

Baztertzailleak dira. Anbiguotasunak edo esanahi-ugaritasunak saihestu behar dituzte, haiek ekintzak kokatzea zail dezakete eta.	HANDIA	gizarte-jokabideen, -jarrerren eta -pertzepzioen azterketa bat edukitzea.
Garbi eta zehatzak dira. Behar beste definituta daude.	HANDIA	Beren definizioan, hasieran ez dute teilakapenik ageri beren esku-hartzeetan.
Beste egitura txikiago batzuen pean daude kokatuta.	HANDIA	Ardatzak ederki definituta daude dokumentuan, beren eduki nagusiak eta iritsi nahi dituzten helburuak adierazten dituztela.
		Ardatzak helburu estrategiko batzuen bidez definitzen dira. Helburuok, berriz, helburu operatibo batzuen forma hartzen dute, zeinak garatu beharreko neurri batzuetan banatzen diren.

### 1.1.3. Esku hartzeko ildoen edo ardatzen egokitasuna

#### Azterketa-aldagaiaren definizioa:

Ardatz estrategikoek ekintza publikoaren funtsezko esparruak islatu behar dituzte; horregatik, osagai horiek armazoi edo barne-egitura bat dira, eta horixen inguruan sistematizatuko dira identifikatutako beharrei erantzuteko jarduerak.

#### **BALORAZIO OROKORRA:**

Genero Indarkeriaren aurkako Eusko Jaurlaritzaren I. Ekintza Planean definitutako ardatz estrategikoek argiro eta era baztertzaillean zehazten dituzte genero-indarkeriaren aurkako jarduera-politika publikoaren hiru zutarr nagusiak.

## Diseinu- eta egitura-ebaluazioa

### 1.1.4. Helburu (estrategikoak eta operatiboak) egokitzea

#### Azterketa-aldagaiaren definizioa:

Helburu estrategikoak, labur azalduta, geure esku-hartzeaz iritsi nahi ditugun jomugak eta azken xedea dira. Osagaiok lotura zuzen-zuzena izan behar dute ardatz estrategikoekin; baita diagnostikoa egiteko eta esku hartzeko esparrua definitzeko prozesuan detektatutako egoerekin eta beharrekin ere.

## BALORAZIO OROKORRA:

Genero Indarkeriaren aurkako Eusko Jaurlaritzaren I. Ekintza Planean definitutako helburu estrategikoen eta operatiboek modu egokian islatzen dute planifikazio honetarako aurreikusitako xedea. Gehienak helburu neurgarriak eta zehatzak dira, eta egin diren egoera-diagnostikoetan detektatutako beharrei erantzuten diete.

## Diseinu- eta egitura-ebaluazioa

Adierazleak	Balioa	Azalpena
Neurgarriak izan behar dute.	ERTAIN-HANDIA	<p>Ahalegin garrantzitsua detektatzen da helburu kuantifikagarrien zehaztapenean, batez ere helburu operatiboan alorlean. Errealitate hori bistakoa da «handitu», «murriztu», «gehitu» eta horrelako terminoak ageri direnetan.</p> <p>Halere, badira oraindik Planean izaera nabarmenki kualitatiboko helburu batzuk, eta zailagoa da haien neurtzea. Horiek «sustatu», «lagundu»... terminoak erabiltzen dituzte.</p>
Argiak eta zehatzak dira. Informazio xehatua.	HANDIA	<p>GIBLZ-k informazio oso eta xehatuaz definitu ditu helburuak, ezagutza batzuk eskaintzen dituela aurrean ditugun eronkei buruz.</p> <p>Zenbaitetan, helburu batzuk (2.3 autonomia-erkidegoetako eta Estatu mailako erakundeekiko lankidetzak) detektatzen dira, eta, haitetan, informazio gehixeago behar litzateke, zeren edukiak «koordinazio-espazioetako lankidetzak» soilik aipatzen baitu, beste jomugarik edo xede zehatzik zehaztu gabe.</p>
Ez da nahasketarik zer den helburua eta zer den ekintza.	ERTAINA	<p>2. helburu estrategikoan, zenbait desegokitasun nabari dira. Helburuetako asko ez dira zinez xedeak, baizik eta garatu beharreko jarduerak.</p> <p>Adibidez, «batzordearen lehendakari izatea», «Idazkaritzan... jardutea», «Batzordea gidatzea»...</p>
Baztertzailak dira; ez dira tehlakutzen.	HANDIA	<p>Egindako azterketa honetan, ez da detektatzen tehlakapenik Planean helburu estrategikoen artean.</p>
Helburuak ardatz estrategikoarekin egon behar du zuzenean lotuta.	ERTAINA HANDIA	<p>Bai helburu estrategikoen eta bai operatiboek egokitze maila handia</p>

Helburuak eta diagnostikoak lotzen dira.	ERTAINA	dute berak kokatuta dauden ardatzekin.
		Baina nabarmentzekoa da 3.2 helburu estrategikoa: <i>Jokaera bortitzen prebentzioa hobetzea</i> . Hor, prebentzioaz ez baizik eta informazioaz eta bilketa-sistemez ari diren helburu operatiboak jasotzen dira.
		Azterketa orokor batean, ikusten da lotura egokia dela diren beharren eta definitutako jomugen edo xedeen artean.
		Halere, sentsibilizazioaren arloan (3. ardatza), 2 behar zehatz ageri dira, eta hezkuntza-esparruarekin eta komunikabideen eginkizunarekin daude lotuta. Behar horiek ez dute erantzunik aurkitzen ardatz horretarako definitutako helburuetan.
Konpromiso publiko bat adierazten dute.	HANDIA	Eusko Jurlaritzak programa politiko batean adierazitako konpromisoari erantzuten dio horrek, eta modu argi eta zehatzean erakusten du zer lotura den Gobernuak (ikusuntu politikotik) dituen helburu estrategikoen eta kudeaketako ekintza estrategikoen (Administrazio Publikoak emandako zerbitzuei dagozkienak) artean.
		Gainera, Administrazioak erraz gauza ditzake helburuak, horretarako beharrezko eskumenak edukiz gero.

## Diseinu- eta egitura-ebaluazioa

### 1.1.5. Ekintzen egokitasuna

#### Azterketa-aldagaiaren definizioa:

Ekintzak tresna operatibo batzuk dira. Haien bitartez bete nahi dira identifikatutako behar sozialetatik abiatuta zehaztutako helburuak.

#### **BALORAZIO OROKORRA:**

Oro har, modu argi eta zehatzean daude definituta ekintzak. Kasu zehatz batzuetan, ordea, apur bat lausoak edo orokorregiak dira beren definizioan.

Bestalde, ekintza bakoitzeko fitxa independente bat ez izateak bereziki zailtzen du kronograma bat eta aurrekontu espezifiko bat zehaztea.

Adierazleak	Balioa	Azalpena
Ekintza tresna egokia da gure helburua betetzeko edo iristeko.	HANDIA ERTAINA	Helburu estrategikoetan definitutako neurriek erantzun egokia ematen diete aurreikusitako jomugei. Salbuespena: 3.2 helburu estrategikoa: <i>Jokaera bortitzen prebentzioa hobetzea</i> . Horko ekintzak informazioa biltzeko sistemekin eta azterketak eta ikerketak egitearekin daude lotuta.
Ekintzarik egokiena da.	HANDIA	Jarduerek helburuei erantzuten diete; diren baliabideen arabera egiten dute, eta definitutako eskumen-esparruaren barruan.
Publiko hartzaile bat zedarritzea.	APALA	Plan baten esku-hartzeen hartzaile diren publikoak segmentatuta, ekintzek sortutako eraginaren azterketa bat egin daiteke, batetik, eta esku-hartze mailan Administrazioak daukan maparen erradiografia bat eskaintzen du, bestetik.  Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren Ekintza-Planak ez du zehazki aipatzen zer publikori dauden zuzenduta neurriak, baina indarkeriaren biktima izandako emakumeak dira politika horren hartzaile nagusiak.
Zereginetan banatzea. Ekintzen xehetasun maila.	ERTAIN-APALA	Nahiz eta egia den ekintzok gehienak ulergarriak direla, egia da halaber haien xehetasun maila txikia dela. Ez da ageri informaziorik egin beharreko zereginez, funtzio zehatzez...
Ez da nahasketarik ekintzaren eta helburuen artean.	HANDIA	Ekintzak zuzen daude definituta. Kasu bakan batzuetan bakarrik ageri dira ekintza orokorregi batzuk; «hobekuntza jarraituaz», «koordinazioaz», «sustapenez» ari direnetan, zehazki.

## Diseinu- eta egitura-ebaluazioa

Adierazleak	Balioa	Azalpena
Funtzioak eta ardurak definitzea,	APALA	Planean, ez da zehazki zehazten



ekintza bakoitzeko.

zer funtzio bete beharko dituzten organismoek eta erakundeek planifikatu diren ekintzetan. Inplikaturako sail gisa ageri dira haiek, soilik.

Gauzatze-adierazleen eta emaitzen bitartez neur daitezkeen ekintzak.

HANDIA

Ikuspegi orokor batean, ekintzak ederki neur daitezke gauzatze-adierazleen eta emaitzen bitartez.

Baztertzailerak dira; ez dira teilkatzen.

ERTAIN-APALA

Ez da igartzen teilkatze garrantzitsurik, baina beharrezkoa da hiru espazio hauek berrikustea:

- Protokoloak egitearekin, betetzearekin eta egokitzearekin lotutako ekintzak, 1.2 eta 1.4 helburuetan partekatutako edukiak ageri baitira haietan.
- Sexu-jazarpenari buruzko materialak egiteari, implementatzeari eta zabaltzeari buruzko ekintzak (1.4.8 eta 1.4.9 ekintzak).
- Profesionalen sentsibilizazioarekin lotutako ekintzak (1.2.10 eta 3.2.3).

Planteatutako helburuei nahiz detektatutako beharrei erantzuten die ekintzak.

HANDIA

Oro har, ekintza multzoak ongi erantzuten die aurreikusitako beharrei eta jomugei. Nahiz eta 3. ardatzaren kasua gogora daitekeen, han ez baita sentsibilizazio-ekintzarik hezkuntzaren arloan eta komunikabideen eginkizunaz.

Bada ekintzaren garapenerako kronograma bat.

APALA

Ekintzak denbora mailan planifikatzea da ekintza-plan baten garapen egokiaren funtsezko adierazleetako bat. Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren Ekintza-Planaren kasuan, ez da aurkezten ekintzak garatzeko eta betetzeko aurreikusitako datak dauzkan jarduera-programarik.

Bada ekintzeekin lotutako aurrekontu bat.

ERTAINA

Planak badu urteko aurrekontu orokor bat (2011-2013); baita aurrekontu-banakapen bat ere, ekintzetarako (GIBLZrenak eta Ertzaintzarenak, nagusiki).

Aurrekontu-banakapenik gabe gelditzen dira, ordea, Planean hasieran ekintzak izendatu zaizkien sailok: Hezkuntza; Enplegua eta Gizarte Gaiak; Etxebizitza eta Herri Lanak; Industria; Kultura; Ingurumena, eta Lehendakaritza.

# Diseinu- eta egitura-ebaluazioa

## 1.1.6 Adierazleen eraginkortasuna

Azterketa-aldagaiaren definizioa:

Garatutako jardueren garapena, emaitzak eta eragina neurtzea da planifikazio publikoekin lotutako adierazleen xedea. Ildo horretan, argitu behar da funtsezko baldintza dela, ebaluazio egoki bat egiteko, adierazleak egoki lotzea helburuekin, eta modu kuantifikagarrian eta neurgarrian definitzea.

### ALDAGAIAREN BALIOESPEN OROKORRA:

Planarekin lotutako adierazleak abiapuntu egokia dira Planaren emaitzak eta aurrerapenak ezagutzeko; halere, homogeneizatzeko, egokitze eta planifikazioaren ekintzekiko eta helburuekiko doitze handiago batzuk behar dituzte.

Adierazleak	Balioa	Azalpena
Neurgarria eta kuantifikagarria da.	HANDIA	la adierazle guztiak kuantifikagarriak dira (kopuru absolutua, ehunekoak, denborak...).
Egokia da; ekintzaren eta helburuarekin garapena neurtzeko erazkoa.	APALA	Atal honetan, garrantzitsua da gauza bat aipatzea: Planeko fitxetan definitutako adierazle-espazioan, heterogeneotasun handia aurkitzen dugu, honako hauek batzen baitira hor: emaitzen eta prozesuaren adierazle zehatzak (ekintzaren garapena neurtzekoak eta aztertzekoak), eta eraginari buruzko adierazle orokorrak (helburu estrategikoekin lotuak).  Gainera, adierazi behar da Planean definitutako adierazleek erantzun batzuetan generikogia ematen dietela ekintzei, eta ez direla zehazki haien garapena neurtzeko gai. Hau da, adierazleen kopurua benetan handia da; halere, ez diete behar besteko erantzuna ematen diren beharrei.
Informazio-iturri erabilerraz, ebaluagarri, egonkor eta fidagarriak.	ERTAINA	Planean, ez dira zehazten informazio-iturriak; ez da esaten zenbatean behin eskuratuko diren datuak ere. Ebaluazioa garatu ondoren, haatik, informazio- eta jarraipen-sistema egoki bat detektatzen da. Ebaluazio-prozesuan eskuratutako

## Diseinu- eta egitura-ebaluazioa

Werecat84 | 17 | Placeholder on slide 23:

### 1.2. KANPO FAKTOREA

#### 1.2.1. Eskumenak zedarritzea eta arau-esparrua.

##### Azterketa-aldagaiaren definizioa:

Planifikazio publikoek bat etorri behar dute zuzenbide-, arau- eta eskumen-esparruarekin, eta haren barruan egon behar dute kokatuta; gainera, modu egokian definitu behar dituzte esku hartuko duten eragileek egin beharreko funtzioak.

##### **ALDAGAIAREN BALIOESPEN OROKORRA:**

Planifikazioak modu egokian eta behar adina definitzen du indarkeria matxistaren biktimen arretarekin lotutako zuzenbide- eta arau-esparrua. Eskumenen atalean garatu behar dira, bereziki, esku hartuko duten eragileen funtzioak.

Adierazleak	Balioa	Azalpena
Zuzenbide-, lege- eta arau-esparru baten presentzia.	HANDIA	Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren I. Ekintza-Planak lege- eta arau-esparru oso eta xehatu bat ageri du. Dokumentu planifikatzaileak lege-, xedapen-, araudi- eta dekretu-zerrenda luze bat jasotzen du sistematikoki, eta haiek ez dira autonomia-erkidego mailakoak bakarrik, baizik eta baita Estatu eta nazioarte mailakoak ere.
Argitasuna eskumenetan eta funtzioetan	ERTAINA	Planak azterketa bat du barnean, beste sail eta erakunde autonomo batzuek genero-indarkeriaren arloan dituzten eskumenekin eta/edo garatzen ari diren zereginekin. Emakunde, Hezkuntza, Justizia, Etxebizitza,

Enplegua, Osasuna... aipa daitezke sail eta erakundeon artean. Halere, Planak azaletik zehazten du zein diren genero-indarkeriaren aurkako borrokan sailok gara litzaketen funtzioak. Plan honek Eusko Jurlaritzaren gainerako planifikazioekin dituen loturei dagokienez, Berdintasunerako V. Planarekiko lotura estua nabarmen daiteke. Kasu honetan, bai direla aipatzen, nabarmenki, lan partekatu bati buruzko koordinazio-osagai batzuk eta funtzioak. Bestalde, beste planifikazio batzuei dagokienez, hala nola Hezkuntzakoari, Osasunekoari eta Etxebizitzakoari, esan behar da ez dela detektatzen edukirik haiei dagokienez.

## Diseinu- eta egitura-ebaluazioa

Werecat87 | 14 | Placeholder on slide 24:

### 1.2.2. Planaren norainokoaren eta profilaren definizioa

Azterketa-aldagaiaren definizioa: Azterketa honen helburua da garatu beharreko lanaren mugak ezagutzea, eta, horri dagokionez, oso kontuan izango dira esku-hartzearen esparrua eta inplikaturako eragileen partaidetza.

#### **ALDAGAIAREN BALIOESPEN OROKORRA:**

Gobernuaren Plan bat da, eta sail ugari nahasten ditu (11 sail daude inplikaturata, eta 4 erakunde publiko). Ardura, ordea, Herrizaingo Sailarena da erabat (65 ekintza), eta GIBLZ bera da ekintzen kudeaketa-erakundea (65 ekintza).

Hala, lehen azterketa batean, Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren I. Ekintza-Plana batez ere gobernu-ikuspegitik egindako plan bat bezala ulertzen da. Genero-indarkeriaren arloko jarduera Eusko Jurlaritzaren beraren esku-hartze esparrura mugaturik ageri da. Herrizaingo Sailak berak kapitalizatzen du, GIBLZ-ren bitartez, esku-hartzea.

Halere, behin helburuen edukietan barneratzen garenean, eta, batez ere, jarduera zehatzetan, jarduerak egiteko ardura duten eragile eta erakunde inplikaturaren presentzia ikusten da. (IKUS hurrengo orrialdeko KOADROA). Hau da, Plana betetzearen ardura ez dagokio soilik GIBLZri, baizik eta beste sail, elkarte eta erakunde batzuekin partekatzen da.

# Diseinu- eta egitura-ebaluazioa

## INPLIKATUTAKO ERAGILEEN MAPA

<b>Herrizaingo Saila</b>	<b>65</b>	<b>100%</b>
<b>Justizia eta Herri Administrazio Saila</b>	<b>65</b>	<b>100%</b>
<b>Hezkuntza Saila</b>	<b>58</b>	<b>89%</b>
<b>Osasun eta Kontsumo Saila</b>	<b>58</b>	<b>89%</b>
<b>Emakunde</b>	<b>51</b>	<b>78%</b>
<b>Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila</b>	<b>45</b>	<b>69%</b>
<b>Etxebizitza eta Herri Lan Saila</b>	<b>45</b>	<b>69%</b>
<b>Industria Saila</b>	<b>17</b>	<b>26%</b>
<b>Kultura Saila</b>	<b>10</b>	<b>15%</b>
<b>Ekonomia eta Ogasun Saila</b>	<b>7</b>	<b>10,7%</b>
<b>Ingurumen Saila</b>	<b>7</b>	<b>10,7%</b>
<b>Jaurlaritzaren Lehendakaritza</b>	<b>7</b>	<b>10,7%</b>

Werecat93 | 10 | AutoShape on slide 25:

### 1.2.3. Koordinazio-egiturak

#### Azterketa-aldagaiaren definizioa:

Koordinazioa funtsezko osagaia da esku-hartze publikoetan; are gehiago, esku-hartzeok zeharkako izaera dutenean, genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeei laguntzean bezala.

## ALDAGAIAREN BALIOESPEN OROKORRA:

Planak koordinazio-egitura batzuk jasotzen ditu bere ekintzen artean. Kasu honetan, Planean bertan, modu nabarmenean aipatzen dira lan partekatu honi buruzko koordinazio-osagai batzuk eta funtzioak.

## Diseinu- eta egitura-ebaluazioa

Werecat95 | 11 | AutoShape on slide 26:

Koordinazio-adibide gisa, Planean ageri diren honako esku-hartze hauek nabarmen ditzakegu:

- ✓ Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei laguntza hobe emateko Erakunde arteko II. Hitzarmenaren Jarraipen Batzordea.
- ✓ Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistaren Euskal Behatokia sortzea eta martxan ipintzea.
- ✓ Sail arteko Batzordea (Genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean dauden koordinazio-mekanismoei buruzko martxoaren 1eko 29/2011 Dekretuko 10. art.).
- ✓ Ertzaintzaren eta tokiko polizien koordinazio-protokoloak, eta Estatuko gainerako segurtasun-kidego eta -indarrekin koordinatzeko beste prozedura batzuk.
- ✓ Larrialdiei erantzuteko eta GIKo egoerei buruzko datu berriak ezagutzeko informazioa trukatzeko hitzarmenak udalerriekin.
- ✓ Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen aurkako indarkeriaren, etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei izan diren pertsonen berehalako laguntza juridikoa emateko hitzarmena.
- ✓ Sexu-esplotaziorako gizaki-salerosketen biktimei hausnarketa-aldian koordinatzeko eta laguntzeko protokoloaren koordinazio- eta jarraipen-batzordea.
- ✓ Komunikaziorako eta lankidetzarako espazioak jartzea, hiriak diseinatzeaz, planifikatzeaz eta hobetzeaz arduratzen diren profesionalen eta emakumeekiko laguntzan eta defentsan inplikaturako profesionalen artean, genero-indarkeriari dagokionez.

## Diseinu- eta egitura-ebaluazioa

### 1.3. KONTROL KOADROA ETA HOBETUNTZAK

Jarraian, egindako azterketa-ataletako bakoitzean garatu beharreko lan-ildo nagusiak aurkezten dira:

## 1\_BARNE FAKTOREA

Azterketa-aldagaia	Kontrol-adier. kop.	Balioespena	Ezar litezkeen hobekuntzak
<b>Arkitektura eta neurtzea</b>	3	ERTAIN-APALA	Ekintza bakoitzeko eduki-fitxa bat sortzea da garatu beharreko osagai nagusia, Planaren arkitekturari dagokionez. Fitxak informazio egoki eta zehatza edukiko du, eta ezarri beharreko neurriaren beraren jarraipena eta ebaluazioa egiten utziko.
<b>Diagnostikoaren garrantzia</b>	11	ERTAIN-HANDIA	Azterketa honetan, indarkeria matxistaren biktima izan diren emakumeekin lotutako espazioak jasotzeko beharra detektatzen da. Espazioei esker, eskaria atzemateko prozesu etengabeak gara litezke, eta prozesuok, berriz, egindako esku-hartze publikoak doituko dituzten beharrak eta pertzepzioak jasoko dituzte.
<b>Esku hartzeko ildoan egokitasuna</b>	4	HANDIA	Planean definitutako hiru esku-hartze ildoei dagokienez, ez da detektatzen hobekuntza-osagai esanguratsurik.
<b>Helburuak egokitzea</b>	7	ERTAIN-HANDIA	Helburuei doakienez, hiru dira garatu beharreko lan-ildo nagusiak: <ul style="list-style-type: none"><li>• Eraginkor bihurtzeko</li></ul>

zailtasunik handienak dituzten helburuak doitzea eta definitzea.

- Sentsibilizazio-ardatzean, beste bi helburu sortu behar dira: bat, hezkuntza-esparruarekin lotua, eta, bestea, komunikabideek duten eginkizunean zentratua.

## Diseinu- eta egitura-ebaluazioa

Azterketa-aldagaia      Kontrol-adier. kop.      Balioespena

Ekintzen egokitasuna

11

ERTAINA

Ekintzen egokitasuna azterketa berezi bat da, eta doitze zehatz batzuk behar ditu honako hauetan zentratu:

- Ekintza lauso edo beren definizioan orokorregiak diren kasu zehatzen berrikuspena eta doikuntza.
- Kronograma eta esku-hartzearen jasotzaile izango den publikoa jasotzea



			<ul style="list-style-type: none"> <li>• ekintza bakoitzaren fitxan.</li> <li>• Diren teilakatzekasu puntualak konpontzea.</li> <li>• Jokaera bortitzen prebentzioari buruzko 3.2 helburuan definitutako ekintzak doitzea.</li> </ul>
Adierazleen eraginkortasuna	3	ERTAINA	<p>Adierazleei dagokienez, bi dira ezar litezkeen hobekuntzak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ekintza bakoitzerako adierazle-tipologiak (prozesua, emaitzak eta eragina) sailkatzea eta homogeneizatzea.</li> <li>• Adierazlerik egokienak eta eraginkorrenak aukeratzea, ekintza bakoitza neurtzeko.</li> </ul>

## Diseinu- eta egitura- ebaluazioa

### 2. KANPO FAKTOREA

Eskumenak zedarritzea eta arau-esparrua	2	ERTAIN-HANDIA	Eskumen-esparru baten garapenean aurrera egitea, argiago zehatz
---	---	---------------	---

			ditzan administrazio publiko bakoitzak egin beharreko funtzioak.
Planaren norainokoaren eta profilararen definizioa	1	HANDIA	Beste sail batzuen inplikazioa eta konpromisoa handitzea ekintzen garapenean eta betetzean.
Koordinazio-egiturak	1	ERTAIN-HANDIA	Indarkeria matxistaren biktima izan diren emakumeei laguntzeko gizarte-erakundeekiko eta administrazioekiko koordinazio-espazioak handitzea eta/edo indartzea.

## 2. Planaren ezarpenaren ebaluazioa

Kapitulu honetan, *Genero Indarkeriaren aurkako Eusko Jaurlaritzaren I. Ekintza Planean* jasotako ekintzen **implementazioaren balantze** bat egiten da, haien egoeraren eta garapen mailaren arabera.

*Genero Indarkeriaren aurkako Eusko Jaurlaritzaren I. Ekintza Planean* aurreikusitako ekintza guztiei buruzko datuak aztertu ondoren, esan daiteke **haitan guztietan behar beste informazio jaso dela** ekintzen edukia ongi ulertzeko.

Hala, **zehatz-mehatz ezagut daiteke Planak proposatu zituen ekintza guztien eta bakoitzaren garapen eta implementazio maila.**

## Informazio-bilketaren balantzea

## Ekintzen % 100ek ditu bere egoerari buruzko informazioa eta datuak.

Azterketa horrek zutarr nagusi hauek izango ditu:

Lehen atal bat, zeinean Planaren ezarpen kuantitatiboaren azterketa egingo den.

Eta bigarren azterketa maila bat, Aurrerabide-txostena deritzana, eta, hor, Planaren esparruan egindako aurrerapen eta garapen nagusien azterketa bat egingo da, ikuspegi kualitatiboago batetik.

## 2.1. Planaren inplementazioa eta garapena

### A. Neurrien egoera, haien garapen maila orokorraren arabera

Jarraian, Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren I. Ekintza Planean aurreikusitako ekintzen azterketa bat egiten da, ekintzok ageri duten garapen mailaren arabera.

Ilido horretan, lehen maila batean honako parametro hauen arabera jasoko dira aipatu ekintzak:

- 2011n abiatu diren ekintzak
- 2011n abiatu ez diren ekintzak

Emaitzak honako taula honetan erakusten dira. (1. taula)

1. taula. Ekintzen banaketa, haien inplementazioaren arabera

Neurrien egoera	K	Ehunekoak
Abiatutako neurriak	59	91%
Abiatu gabeko neurriak	6	9%
Guztira	65	100%

\* Baliteke datuen batura ez izatea % 100, biribiltzearen ondorioz.

## Planaren inplementazioa eta garapena

Atal honetan, Planaren inplementazioari buruzkoan, azterketa kuantitatibo bat egiten da, eta honako urrats hauek izango ditu:

- Neurrien egoera, haien garapen maila orokorraren arabera
- Neurrien egoera, haien ildoen eta helburuen garapen mailaren arabera
- c. Betetze mailaren kausak
- d. Neurrien jarraitutasuna
- e. Aurrekontuak esleitzea
- f. Eragile arduradunak eta betetze maila
- g. Ekintza osagarriak

Werecat116 | 21 | Placeholder on slide 33:

Ikus daitekeenez, ekintza gehienak, Planean aurreikusitako **65etik 59**, 2011n zehar ipini dira martxan, eta soilik % 9 ez dira oraindik abiatu.

### A.1. Abiatutako ekintzak

Jarraian, azterketa xehatuago bat egiten da ekintza guztien aurrerapen mailaz, eta zehazten da ea osatu diren 2011n, ea maila aurreratuan edo ertainean dauden, edo ea, aldiz, garapen maila apala duten. (2. taula)

Goiko koadroan ikus daitekeenez, Planean abiatutako ekintza guztietatik, **% 37 osoki bete dira 2011n zehar**, eta **ia proportzio berak betetze maila handia** ageri du.

Datuon arabera, **Planeko lau ekintzetatik ia hiruk betetze maila garrantzitsua dute**, martxan jarri zirenetik urtebete hutsera.

Garapen maila	K	Hasitako guztien gaineko %	Planeko guztien gaineko % *
Osaturik	22	37%	34%
Aurreratuta	21	36%	32%
Ertaina	10	17%	16%
Apala	6	10%	9%
Guztira	59	100%	91% (65)

2. taula. Ekintzen banaketa, haien garapen mailaren arabera

\* Baliteke datuen batura ez izatea % 100, biribiltzearen ondorioz.

## Planaren implementazioa eta garapena

Bestalde, **16 ekintza**, nahiz eta **2011n abiatu ziren**, ez dira osatu, eta betetze maila ertaina edo apala ageri dute.

### A.2. Abiatu gabeko ekintzak

Badira, gainera, **abiatu ez diren 6 ekintza**.

**Motibo** askok ekarri dute egoera hori, eta jarraian ageri den grafikoan xehatzen dira. (1. grafiko)

Datuak irakurtzean, kontuan eduki behar da soilik 8 ekintza direla.

Grafikoan ikus daitekeenez, haien % 50 (3) 2012an garatuko da, hau da, atzeratu egin da haiek betetzea.

Bestalde, **zalantzak dira 2 ekintzen betetzeaz (berrikusten ari dira), eta soilik ekintza bat dago etenda**.

1. grafiko. Abiatu gabeko ekintzak, kausaren arabera

## Planaren implementazioa eta garapena

Ondoko taulan, 2011n gauzatu ez ziren ekintza zehatzak ageri dira, eta orain zer egoeratan dauden. (3. taula)

Ekintza	Izena	Egoera	Saila
1.2.8	Indarkeriaren detekzio goiztiarrean esku hartzeko protokoloak berrikustea, eta, horren ondorioz, protokolo horiek hobetzeko gomendioak sartzea.	Berrikusten ari diren ekintzak	Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza
1.2.9	Emakumeen aurkako indarkeria-kasuak garaiz detektatzeko lanean inplikaturako talde profesionalen arteko komunikazioa hobetzea.	Berrikusten ari diren ekintzak	Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza
1.2.15	4/2005 Legearen 58.4 artikuluan aurreikusitako	Etenda dagoen ekintza	Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko

	laguntzen legegintza-garapena eta izapidetzea.		Zuzendaritza
1.2.18	Laneratzeko ibilbide pertsonalizatuak diseinatzea, genero-indarkeriaren biktimei premiei eta egoera bereziei egokituta.	2012RAKO AURREIKUSITA	Lanbide
1.3.3	Genero-indarkeriaren biktimentzako laguntza psikologikoa indartzea, ahultasuna eta ahultasun-irudipena murrizteko, eta egoera abiarazleen aurrean sendotasun psikologikoa handitzeko eta defentsa-mekanismoak hobetzeko.	2012RAKO AURREIKUSITA	Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza
2.1.3	Genero-indarkeriaren Euskal Behatokian hartutako erabakien ondorioz sortutako akordioak abian jartzea.	2012RAKO AURREIKUSITA	Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza

## Planaren implementazioa eta garapena

Werecat129 | 13 | Placeholder on slide 36:

Jarraian, taula bat (4. taula) eskaintzen da, eta, hor, ekintzen multzo osoaren garapen maila jasotzen da, haien ildo estrategikoaren arabera.

Ildo horretan, ikus daiteke jarduera-ildo guztiek betetze maila garrantzitsua dutela, kontuan hartzen badugu:

-Lehenengo jarduera-ildoak genero-indarkeriaren biktimei laguntzea aurreikusten duela, eta ekintzen % 66 beteta edo oso aurreratuta dituela.

-Bigarren jarduera-ildoak koordinazioa eta erakunde arteko lankidetzaz lantzen dituela, eta ekintzen % 71,5 beteta edo oso aurreratuta dituela.

-Azkenik, hirugarren 3. ildoak genero-indarkeriarekiko sentsibilizazioa, prebentzioa eta ikerketa lantzen dituela, eta ekintzen % 64,7 dituela egoera horretan.

Helburu estrategikoei dagokienez, azpimarratu behar da **2.2 helburu estrategikoa (genero-indarkeriaren alorreko Eusko Jaurlaritzaren politika koordinatzea)** dela betetze maila handia edo osoa ageri duen bakarra. Hala eta guztiz ere, kontuan eduki behar da hark **ekintza bakarra daukala**.

**Bigarren, eta modu esanguratsuagoan, genero-indarkeriaren arloan herritarrak sentsibilizatzea** aipu duen helburua (3.1 HELBURUA) ikusten da, eta, hor, **ekintzen % 85 bete dira, hau da, diren 7etatik 6.**

## B. Neurrien egoera, haien ildoen eta helburuen garapen mailaren arabera

# Planaren implementazioa eta garapena

4. taula: ekintzen banaketa, ildo eta helburu estrategiko bakoitzaren gainean duten betetze mailaren arabera.

# Planaren implementazioa eta garapena

Werecat134 | 20 | Placeholder on slide 38:

## C.1. Ekintzen amaiera edo goi betetzea

Hurrengo atalean, ekintzen implementaziorako lagundu duten edo erabakigarriak izan diren osagaiak aztertzen dira. (5. taula)

Ekintzen amaiera eta goi betetzea errazten duten kausak lau hauek (koordinazioa, prozedura, baliabideak eta aitzindaritza) edukitzean banatzen dira modu antzeko samarrean. Faktore horietako bakoitzak garapen handi edo osoaren kausen % 15 edo 16 biltzen du.

5. taula. Garapen handi edo aurreratuaren kausen banaketa

## C. Betetze mailaren kausak

# Planaren implementazioa eta garapena

Denbora edukitzea, aldiz, ez da hain erabakigarria ekintzak betetzeko, kausen % 6,9rentzat bakarrik gertatzen baita lagungarri maila horretan.

Halere, baiezta daiteke kausa-aniztasuna funtsezko osagaia dela ekintza bat aurrera atera dadin, eta alderdi askok laguntzen dute emaitza horretan.

## Planaren implementazioa eta garapena

	K	Ehunekoak
Denbora-falta	3	33,3%
Baliabide-falta	2	22,2%
Arduradun bat ez izatea	1	11,1%
Koordinaziorik eza	1	11,1%
Aitzindaritzarik eza	1	11,1%
Neurria ez ezagutzea	1	11,1%
Guztira	9	100%

6. taula. Garapen apalaren kausen banaketa



## C.2. Ekintzen betetze apala

Jarraian, hausnarketa bat egiten da ekintza batzuk maila egokian garatzea zaildu duten osagaiez. (6. taula)

Betetze apala izan duten ekintzei (5 ekintza) dagokienez, badirudi denbora- eta baliabide-faltak oztopatu dutela hein handi batean ekintza horien betetze egokia: adierazi diren motiboen % 33 eta % 25 sartzen dira faktore horietan, hurrenez hurren.

## Planaren implementazioa eta garapena


Atal honetan, aztertzen da ea Planean aurreikusitako neurriak 2012an gara ote daitezkeen; bai jadanik 2011n aplikatu baziren, bai ez baziren ere. (7. taula)

Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren I. Ekintza Planean dauden ekintzen etorkizuna aztertzen denean, aurreikuspen nagusia da neurriok geroan ere jarraitzea. Planak ageri dituen 65 ekintzetatik, aurreikusten da % 90.8k jarraituko duela; haietatik 55 abiatuta daude, eta 4, berriz, abiatu gabe.

**Gainera**, 2012an, ekintza guztietatik 2 bakarrik ez dira jarraituko hasiera batean.

- **4/2005 Legearen 58.4 artikuluan aurreikusitako laguntzen lege-garapena eta izapidetzea.**
- **Genero-indarkeriako erasotzaileak berreztea helburu duen proiektu pilotua koordinatzea.**

	ABIATUTA
	ABIATU GABE
	GUZTIRA
	K
	Ehunekoa
	K
	Ehunekoa
	K
	Ehunekoa
Jarraitu nahi du	55
	93,2%
	4
	66,6%
	59
	90,8%
Ez du jarraitu nahi	1
	1,7%
	1
	16,6%
	2
	3,1%
<b>ED/EDE</b>	
	3
	5,1%
	1



7. taula. Ekintzen etorkizunaren arabeko banaketa

## D. Neurrien jarraitutasuna

# Planaren implementazioa eta garapena

Werecat208 | 13 | AutoShape on slide 42:

Jarraian, daukaten aurrekontuaren arabera aztertzen dira ekintzak.

Lehen hurbilpen batean, aurrekonturik baden edo ez aztertzen da.

Batzuetan, ekintzek aurrekontu espezifiko bat izango dute garatzeko; beste batzuetan, modu erantsian sartuko da aurrekontu hori ekintza gauzatzeko ardura daukan sailaren barruan, eta, beste batzuetan, azkenik, ekintzok ez dute aurrekontu garbirik izango. (8. taula)

**Aurrekontuari dagokionez, 2011n martxan ipintzen diren neurrien % 90ek badu aurrekontu bat esleituta.** Hala ere, guztiek ez dute zenbateko zehatz bat, garatzeko. Aurrekontu-datuak daukaten ekintzen erdiak sailek beren barne-funtzionamendurako dituzten baliabideekin garatzen dira.

guztira

**Aurrekontu-esleipena (2011n abiatutako ekintzetarako –59 ekintza–)**

**Datuekin**

**Daturik gabe**

53

6

**Bere aurrekontua**

**Esleitutako aurrekontua**

28

25

8. taula. Esleitutako aurrekontuaren araberako banaketa

## **E. Aurrekontuak esleitzea**

# **Planaren implementazioa eta garapena**

<b>Sail arduraduna</b>	<b>Ekintza berrien K</b>
Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza	8
Emakunde	3
Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila	4
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila	7
Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila	3
GUZTIRA	25

Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren I. Ekintza Planean jasotako ekintzen ebaluazioari dagozkion datuak aztertu ondoren, ikusten da zuzendaritza eta sail batzuek genero-indarkeriaren aurkako borrokarako Planaren beraren beste plan osagarri batzuk garatzen dituztela. (11. taula)

Aipatu datuak bi iturri nagusitatik atera dira:

Alde batetik, etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko erakunde arteko II. Hitzarmenaren jarraipen-txostenetatik.

Bestetik, prozesuko fase kualitatiboan prozesuko funtsezko erakunde eta entitate egindako elkarrizketa sakonetatik.

## **G. Ekintza osagarriak**

## Planaren implementazioa eta garapena

Werecat227 | 13 | Placeholder on slide 44:

Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren I. Ekintza Planean, ikusi da, **haren barruan egindako ekintzez gainera**, Gobernuko sail eta zuzendaritza batzuek **ahalegin osagarriak egin dituztela genero-indarkeriaren aurkako borrokan**; zehazki, 25 jarduera berri.

Hala, Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak berak eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ageri dituzte ekintza berri gehien.

**Hezkuntza** da ahalegin berezia egin den esparruetako bat, eta ahalegin hori Planaren osagarri izan da.

**Zenbait jarduera egin dira genero-indarkeria eta harekin lotutako arazoak talde gazteenei hurbiltzeko**, eta, horretarako, kontzientziatze-lanak eta arazoa ikusarazteko saioak egin dira talde horien aitzinean: heziketa-kitak, mintegiak...

Bestalde, **sail batzuek hainbat neurri eta protokolo** ipini dituzte martxan, **genero-indarkeriaren aurkako borrokako erakunde arteko akordioak eta politikak sozializatze**ko.

Azkenik, **genero-indarkeriarekiko informazioaren kanpo-komunikazioarekin lotutako elementu batzuen** erreferentzia egiten da. Datu zehatz batzuetan jartzen da **arreta berezia: jadanik argitaratutako informazioaren inguruan** aholkatzeko Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak **herritarrei eman diezazkiekeen datuetan**.

## Planaren implementazioa eta garapena

### G. Ekintza osagarriak

Laburbilduz, nahiz eta Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren I. Ekintza Planak bere hasieran ez zuen aipatzen herritarrak **hezteko** eta haiei mezuak **komunikatzeko lanik**, arlo horietan ere genero-indarkeriaren aurkako borrokan laguntzen duten prozesuak sortu dira berez.

## Planaren implementazioa eta garapena

Werecat232 | 11 | Text box on slide 45:

Eduki osagarri horiek ageriago jartzeko asmoz, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arloan esku-hartzea eta laguntza hobetzeko garatzen ari diren ekintza zehaztetako batzuk aurkezten ditugu jarraian:

**GIBLZ:** Genero-indarkeriako kasuek prentsan, irratian eta telebistan duten tratamenduari buruzko azterketak egitea eta Deustuko Unibertsitateko emakumeen kontrako Indarkerian esku hartzeko Masterrean irakakuntza lana garatzea.

**EMAKUNDE:** Deustuko Unibertsitateko emakumeen kontrako Indarkerian esku hartzeko Masterraren irakaskuntzan laguntzea.

**ENPLEGUA ETA GIZARTE GAIAK:** indarkeria matxistaren aurrean emakume etorkinek jasan dezaketen ahultasun-egoera bereziari erantzuteko informazio-protokoloak eta -euskariak berrikusteko batzorde bat sortzea, GIBLZren lankidetzaz.

**ETXEBIZITZA:** Etxebizitza Legearen Aurreproiektua, genero-indarkeriaren biktimekin lotutako alderdi batzuk jasotzen dituela.

**HEZKUNTZA:** bizileku-aldaketa bat jasan duten genero-indarkeriaren biktimen seme-alaben berehalako eskolaratzea bermatzea.

Atal hau osatzeko, kontrol-koadro bat eskaintzen da aurreko orrialdeetan aztertutako datu nagusiekin, Planaren betetze-egoeraren ikuspegi global bat emateko nahiz izan litezkeen hobekuntza-elementu batzuk sartzeko.

## H. Kontrol-koadroa

# Planaren inplementazioa eta garapena

## 2.2. Aurrerabide Txostena

### Aurrerabide-txostena

Werecat238 | 15 | Placeholder on slide 48:

Jarraian, Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren I. Ekintza Planak izandako aurrerapenaren eta garapenaren azterketa bat egiten da ikuspegi kualitatiboago batetik, ekintzak betetzeko ardura duten pertsonekin egindako elkarrizketetatik eta talde-dinamiketarik jasota.

Kapitulu honek helburu zehatza du: izandako esku-hartzeekin iritsi diren emaitza zehatzak ezagutaraztea, eta oraindik behar beste garatu ez diren alderdiak ere agerian jartzea.

Azterketa hori aipatu Plana egituratzen duten ardatz eta ildo estrategikoetan oinarrituta egingo da.

**1. ardatza: genero-indarkeriaren biktimezako arreta**

**2. ardatza: erakundeen koordinazioa eta lankidetzak**

**3. ardatza: genero-indarkeriaren inguruko sentsibilizazioa, prebentzioa eta ikerketa**

Oharra: kapitulu honetan, zenbait esteka birtual eskaintzen dira ekintzen garapena justifikatzen duten dokumentuak eskuratzeko.

## Aurrerabide-txostena

Werecat241 | 17 | Placeholder on slide 49:

**1. ardatza: genero-indarkeriaren biktimezako arreta**

Ardatz honek modu integral eta eraginkorrean jardun nahi du emakumeek, hala izateagatik, jasaten dituzten indarkeria-egoeren aurrean. Horretarako, genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko Jaurlaritzaren politika antolatuko da; arreta eta informazio hobea emango zaie emakumeei, eta biktimei eta haien seme-alaben segurtasuna bermatuko da.

Hala, bigarren mailako biktimizaziorik gerta ez dadin, erantzun integralak eman behar zaizkie emakume horiei arin, agudo eta modu koordinatuan. Horretan laguntzen du Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza arretarako kanal bateratu gisa antolatzeak.

Esparru horretan, 4 helburu estrategiko garatu dira, eta ezarpen-abiadura desberdinak dituzte:

**1.1 helburu estrategikoa: *Jaurlaritzaren politika antolatzea, genero-indarkeriaren biktimei arreta emateko arloan.***

lido horretan, aurrerapen ugari iritsi dira, genero-indarkeriaren biktimen espedienteak **aztertzeko eta kudeatzeko kanal bateratu bat** sortuta eta martxan ipinita.

Erakundeen arteko lankidetzak horren garrantzia azpimarratu da, adibidez, martxoaren 1eko 23/2011 Dekretuaren bitartez.

Beste datu askoren artean, nabarmen daiteke **246 emakumek** eskatu dituztela, kanal horren bidez, Gobernuaren laguntzak esparru horretan.

Bestalde, martxoaren 1eko 23/2011 Dekretua argitaratuta, jadanik **7 dira era koordinatuan genero-indarkeriaren biktimen laguntzarekin lotuta dauden sailak edo erakunde autonomoak.**

- Herrizaingo
- Emakunde
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa
- Justizia eta Herri Administrazioa
- Etxebizitza, Herri-lan eta garraioak
- Enplegu eta Gizarte Gaiak
- Osasun eta Kontsumo

Gainera, jadanik ipini da martxan genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko Administrazioaren barruan erakundeak koordinatzeko euskarri informatikoa. Horrek ekarri duen emaitza: **2714 emakumeri** eskaini zaie arreta Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzan, bai modu presentzialean, bai telefono bidez.

## Aurrerabide-txostena

Werecat244 | 18 | Placeholder on slide 51:

**1.2 helburu estrategikoa: *genero-indarkeriaren biktimei diren emakumeei arreta osoa ematea.***

Esparru horretan, jarduera ugari ipini dira martxan, eta modu egokian garatu. Genero-indarkeriari buruz emakumeei arreta eta informazioa emateko zerbitzua hobetzeko prozesu bat ipini da martxan.

[SATEVI](#) arreta telefonikoko zerbitzua zerbitzu hari arreta integrala ematen ari da. **5.193 dei** jaso ziren han.



Gainera, etengabe berritzen da Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren web orria, eta informazio eguneratu ugari ipintzen han: [txostenak, albisteak, arbuio- eta gaitzespen-ekitaldiak, etab. argitaratzea.](#)

Bestalde, justizia-jauregietan biktimei ematen zaien laguntza hobetzen lan egiten da orain, eta, horretarako, GIBLZ-ak berak kudeatzen du Biktimei Laguntzeko Zerbitzua (BLZ): 2011n 2.263 pertsonari erantzun die.

Gainera, informazioa jasotzeko Osakidetzako sistema informatikoa ipini zen martxan, inbestimendu handi bat eginda, genero-indarkeriaren biktimei eman beharreko zerbitzua hobetzeko.

Genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeei ematen zaien arreta integrala hobetzeko, Emakumeen kontrako Indarkeria Matxistaren aurkako Legea prestatzen hasi zen.

Halere, haren onarpena eta azken definizioa bertan bera geratu dira, zailtasunak izan baitziren hura indarreko beste araudi eta ildo nagusi batzuekin uztartzeko.

## Aurrerabide-txostena

Werecat246 | 13 | Placeholder on slide 52:

**Genero-indarkeria mota batzuen inguruko informazioari** dagokionez, honako hauetan lan egin da:

➤ **Gizaki-salerosketaren biktima izan diren emakumeak detektatzeko eta haiek artatzeko 2 protokolo eratu dira**, eta indarkeria mota horren **8 emakume biktima artatu dira arreta-zerbitzu integraletan**. Gainera, berrikusi egin dira jadanik diren protokoloak, eta zenbait hobekuntza-proposamen egin.

➤ Genero-indarkeria kasuen aurrean detekzioan eta laguntzan jarduteko profesionalentzako protokoloak eta gidak egitea, eta, gainera, [laneko sexu-jazarpenari aurre egiteko protokoloak](#).

➤ Ahultasun-egoera berezian diren emakume etorkinei genero-indarkeriaren kasuetan ematen zaien arretan ere lan egin da, talde horren egoerari buruzko trebakuntza-prozesuen bitartez. Egoera horretan ziren **1.598 emakume** artatu ziren 2011n.

➤ Genero-indarkeria, laneko sexu-jazarpena edo sexu-esplotaziorako emakumeak salerostea zer diren eta genero-indarkeriaren aurrean nola jokatu jakiteko trebakuntza-ikastaro batzuen bitartez dagozkion talde profesionalak trebatzeko materialak ekoiztea. Talde askori eskaintzen zaizkie trebakuntza-jarduerak: Ertzaintza aipa daiteke, **700 lagun etorri baitziren jardunaldietara**; kulturartekotasunaz eta genero-indarkeriaz antolatutako lantegiak eta mintegiak, 500 lagunetik gora izan baitziren haietan; etab.

➤ Biztanleriarentzat, berriz, informazio-kanpaina batzuk egin dira genero-indarkeriaren inguruan.

## Aurrerabide-txostena

Laguntza ekonomikoari dagokionez, azpimarratu behar dira Emakundek, 2010eko abenduaren 22ko Ebazpenaren bitartez udalei, koadrilei eta mankomunitateei emandako diru-laguntzak, diagnostikoak eta berdintasun-planen egokitzapenak egiteko. **11 dirulaguntza** eman ziren xede horietarako (\*).

Ahalegin handi bat egin den beste alor bat: genero-indarkeriaren biktimei maila ekonomikoan eta arreta mailan laguntzea.

Ilido horretan, GIBLZ-k emakume biktimei zuzendutako **90 laguntza ekonomiko** eman ditu.

Bestalde, enplegua eta prestazio bereziak eskuratzeko zerbitzu espezifiko bat indartu da Lanbiderekin elkarlanean. Emakume askok jo zuen zerbitzu horretara 2011n, prestazio motaren bat eskatzeko. Halere, ez da garatu enplegurako eta/edo gizarteratzeko nahiz laneratzeko trebakuntzari dagokion alderdia.

(\*) 2012ko apirilaren 20ko Aginduaren ondorioz, 2012tik Herrizaingo Sailak kudeatzen du diru-laguntza deialdi hori.

## Aurrerabide-txostena

Werecat251 | 14 | AutoShape on slide 54:

Badira, ordea, oraindik martxan ipini ez diren osagai batzuk. Adibidez, genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeak artatzeko tokietako oztopo arkitektonikoak ezabatzea.

**1.3 helburu estrategikoa: *genero-indarkeria mota guztien biktima diren emakumeen eta haien mendeko pertsona guztien segurtasuna bermatzea.***

Ertzaintza da segurtasun arloko ekintzen betetzailer nagusia genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen segurtasunaren mailan, Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak bultzatuta.

Ilido horretan, zenbait azterketa estatistiko ipintzen ditu martxan, emakume biktimen egoera, biktimizazio kopurua eta haien ezaugarriak ezagutzeko; 2011n, **4.858 biktimizazio detektatu ziren, eta 3.829 emakume biktima.**

Bestalde, erasotzaileak aurkitzeko kontrolak egiten dira, eta urruntze-neurriak betetzen direla zaintzen; gainera, emakumeentzako segurtasun-neurri batzuk eskaintzen dira, hala nola BORTXA telefonoa edo emakumearen egoera ezagutzeko ausazko probak.

Horretarako guztirako, Ertzaintzak arriskua balioesteko tresna bat dauka genero-indarkeriaren biktimentzat (aldian-aldian berrikusi eta eguneratzen dena), zein sexu-esplotazioa helburu duen salerosketaren emakume biktimentzat (orain dela gutxi sortu dena).

## Aurrerabide-txostena

Werecat253 | 12 | Placeholder on slide 55:

Aipatu tresnak etengabeko bilakaeran eta hobekuntzan dira beti, zerbitzu hobe emateko. Gainera, Ertzaintzak aipatu aurrerakaden jakinaren gainean atxikitzen ditu, etengabe, bere kideak. (Trebakuntza jarraitua).

Badira, gainera, beste segurtasun-indar eta -kidego batzuekin batera martxan ipinitako koordinazio-protokolo batzuk, biktimak dauden tokian bertan hobeto babesteko.

Hori guztia emakumeen segurtasunaren pertzepzioaren gainean egindako azterketek bermatuta dator, gainera, gabeziaren bat igartzen den alderdietan etengabe hobekuntzak egiteko.

## Aurrerabide-txostena

#### **1.4 helburu estrategikoa: *genero-indarkeriaren kasuetan arreta- eta jarduera-protokoloak egin eta betetzea sustatzea.***

Ilido horretan, Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza aktore nagusi eta funtsezko ageri da prozesuan. EAEko zenbait udalerritan hainbat jarduera-protokolo inplementatzea lortzen da horrela, eta hark 2011. urtean zehar bere aholkularitza eta bultzada eskaintzen ditu 4 udal-protokolotan.

Zuzendaritza tokiko polizien eta Ertzaintzaren arteko koordinazio-protokolo batzuen traktore da indarkeria-kasuen tratamenduan. Protokolo horiek, gainera, birdefinitzen ari dira etengabe, eta, horretarako, Zuzendaritzak berak hobekuntzak sarrarazten ditu etengabe.

Azkenik, aipagarria da protokolo eta informazio-osagai ugari zabaldu direla enpresen artean, genero-indarkeriaren biktimeizako baliabideak, eta emakumeen salerosketan, sexu-jazarpenean eta beste genero-indarkeria batzuetan prebentzioa eta esku-hartzea bultzatzeko baliabideak ezagutzeko. Horretarako, dokumentu eta informazio-kanpaina ugari sortu dira.

## **Aurrerabide-txostena**

Werecat257 | 12 | Placeholder on slide 57:

### **2. ardatza: erakundeen koordinazioa eta lankidetzak**

Genero-indarkeria oso errotuta dago gizartean; horregatik, kontuan hartu behar da, hasteko, indarkeria hori egiturazkoa eta dimentsioaniztuna dela. Ardatz honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorretik genero-indarkeriaren alorrean bultzatzen eta gauzatzen diren erakunde arteko koordinazio- eta lankidetzak-jarduerak aurreikusten dira. Haietan, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak, esleitu zaizkion eskumenetan oinarriturik, bitarteko- eta aitzindaritzak-funtzioa betetzen du, beti Emakunderekin (Emakumearen Euskal Erakundea) lankidetzak estuan ari dela. Emakunde da, izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko politikako, ekonomiako, kulturako eta gizarteko arlo guztietan emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko ardura duen erakundea.

#### **2.1 helburu estrategikoa: *genero-indarkeriaren biktimeizako prebentzio- eta arreta-programa integralak eratzea koordinatzea erakunde eta administrazio publikoen artean***

Helburu hori iristeko, badirudi ezinbestekoa gertatu dela batzorde hauek garatzea eta martxan ipintzea:

- **Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei laguntza hobea emateko Erakunde arteko II. Hitzarmenaren Jarraipen Batzordea.**
- **Sexu Esplotaziorako Gizaki Salerosketen Biktimak hausnarketa-aldian Koordinatzeko eta Laguntzeko Protokoloaren Koordinazio eta Jarraipen Batzordea.** Horren erabaki-hartzeetan, eragile askok hartu zuten parte.

## Aurrerabide-txostena

Werecat259 | 14 | Placeholder on slide 58:

### 2.2 helburu estrategikoa: *genero-indarkeriaren alorreko Eusko Jaurlaritzaren politika koordinatzea.*

Koordinazioaren mailan, GIBLZ-k bere gain hartzen du EAEko Administrazio Orokorrean genero-indarkeriaren biktimen arretarako koordinazio-mekanismoei buruzko sail arteko batzordean hitzartutako guztia martxan ipintzea. Ipini berria da martxan prozesua, eta bide luzea du egiteko.

### 2.3. helburu estrategikoa: *autonomia-erkidegoetako eta Estatu mailako erakundeekin lankidetzan aritzea.*

Beste erakunde batzuekiko koordinazioaren esparruan, Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak berak parte hartzen duen organismo guztien artean lotura-lanak egiten ditu eta hartutako erabakiak martxan ipintzen ditu.

Beste erakunde batzuekiko lankidetzak horren bitartez, **genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeei laguntzeko beste esperientzia eta kalitate- nahiz kudeaketa-sistema batzuk ezagutzea** lortu da.

Genero-indarkeriako erasotzaileak berreztea helburu duen proiektu pilotuan ere hartzen da parte, eta **8 autonomia-erkidegorekin** dago elkarlana arlo horretan.

## Aurrerabide-txostena

Werecat261 | 11 | Placeholder on slide 59:

### 3. ardatza: **genero-indarkeriaren inguruko sentsibilizazioa, prebentzioa eta ikerketa.**

Hirugarren ardatza genero-indarkeriaren prebentziora dago zuzenduta, genero-indarkeriari buruzko sentsibilizazio- eta ikerketa-kanpaina batzuen bitartez. Prebentzio- eta sentsibilizazio-neurriak gizarte osoari daude zuzenduta. Hezkuntza eta komunikabideei dagokien informazio-zabalkundea jotzen dira esparru garrantzitsuentzat, bi sektore horietatik hel baitiezaiokegu prebentziora aukera eta berme gehienekin.

Ardatz honen bidez, gizarte-jarrera batzuk prebenitu nahi dira; izan ere, hor dira bizi-bizirik jarrerok, diskriminazio-sistema bat osatzen dutela, eta emakumeen aurkako indarkeria errazten eta bultzatzen dutela.

Indarkeria horren aurka jotzeko, ongi ezagutu behar da errealitatea; datu fidagarri eta zehatzak eduki behar dira genero-indarkeriaz; kausak, ondorioak... ezagutu behar dira, gaiari buruz egiten diren azterketek agerian utz dezaten genero-indarkeriaren arazoa.

Sentsibilizazioaren ardatzean, erakunde eta entitate ugari inplikatzeko dira, eta ekintza franko ipintzen dira martxan.

## Aurrerabide-txostena

**3.1 helburu estrategikoa: genero-indarkeriaz sentsibilizatzea herritarrek, lehen mailako gizarte-arazoa baita hura.**

Ilido horretan, GIBLZ-tik era guztietako salaketak, argitalpenak eta gaitzespenak egiten dira genero-indarkeriaren aurka; agerraldietara, ekitaldietara... joaten da. Guztia, beti, gertakari horien aurrean Gobernuak daukan jarreraren testigantza emateko.

[Beldur barik](#). Berdinsarea izeneko Udalen Sareak martxan jarritako ekimena da, gazteen artean berdintasuna, errespetua, autonomia eta askatasuna sustatzea helburu duena eta, azaroaren 25ean Donostian jardunaldi bat egin zuen, **300 partaide** izan zituena.

Web orriak ere gertakari horiek gaitzesteko informazioa dauka. **38.244 bisita** izan zituen **2011n**.

## Aurrerabide-txostena

Werecat265 | 13 | Placeholder on slide 61:

Gainera, pozgarria da ikustea ez dela Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren ekintza bakarkako eta independente bat, baizik eta erakunde publiko askok hartzen dutela parte.

Bestalde, herritarrak sensibilizatzeko kanpainak egin dira eta egiten dira: Emakunderen lankidetzarekin, unibertsitatearekin egindako ekitaldietan, ohiko sensibilizazio-kanpainak, etab.

Emakundetik egindako kanpainei dagokienez, [Nahiko](#) programaren barruan **argitaratutako 4.000 aleak** nabarmen daitezke.

Komunikazio- eta sensibilizazio-kanpaina ugari jarri dira martxan; baita komunikazio-jardunaldiak eta abar ere.

Komunikabideetako publizitatearen eta argitalpenen alderdi txarrenak salatzen ere jarduten dute GIBLZ-k eta Emakundek.

Gizarte-arazo larria den genero-indarkeria agerian jartzeko, Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak txosten estatistiko batzuk argitaratzen ditu aldian behin, eta haiek arazoaren errealitatea islatzen dute. Hilero aldatzen eta eguneratzen dira datuak.

## Aurrerabide-txostena

### 3.2 helburu estrategikoa: Jokaera bortitzen prebentzioa hobetzea.

Jokaera bortitzen prebentzioa hobetzeko, ahalegin handiak egiten dira talde profesionalen trebakuntzan; baita genero-indarkeriaren biktimei diren emakumeei ematen zaien zerbitzuan ere.

Gainera, hainbat azterketa eta lan-talde egin dira emakume horiek jasotzen duten zerbitzua eta esku hartzeko egun diren programak sakonago ezagutzeko.

Hala eta guztiz ere, Emakumeen kontrako Indarkeria Matxistaren Euskal Behatokiak izan behar luke datu- eta informazio-iturri nagusia genero-indarkeriaren gaian. Tresna horrek garapen maila mugatua ageri du, ordea, duela gutxi jarri baitute martxan.

Emakundek zenbait azterketa ipini ditu martxan genero-indarkeriari aurre hartzeko eta, bereziki, emakumeak hirian babesteko; haien segurtasunerako egokia ez den hirigintzari dagokionez, bereziki. Jorratu dituen gaiak: hirigintza-planak eta - azterketak, puntu beltzak, hiri seguruak, etab.

## Aurrerabide-txostena

# 3. Kudeaketa-sistemaren ebaluazioa

## Kudeaketa-sistemaren ebaluazioa

Kapitulu honek Plana nola ari den kudeatzen eta betetzen ebaluatzen du. Planifikazio-tresnaren barruko ekintzak martxan ipintzeko ardura duten pertsonen elkarrizketa sakonak egitea izan da horretarako erabilitako metodologia. Elkarrizketok guztiok eta, batik bat, balioespen-osagai komunek kapitulu hau bi ataletan banatzen utzi dute:

### Kudeaketako indarrak

#### eta egun diren oztopoak.

Werecat272 | 15 | Placeholder on slide 65:

Atal honetan, Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren I. Ekintza-Plana ezartzean aurkitutako indar nagusiak aztertuko dira.

#### BORONDATE ETA INPLIKAZIO POLITIKOA:

Borondate politikoa da, zalantzarik gabe, plan bat arrakastaz martxan ipintzeko funtsezko osagaietako bat.

Bide horretan, Lehendakariaren beraren laguntza eta bultzada izan ditu Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren I. Ekintza Planak; baita laguntza eta apustu sendo bat ere Herrizaingo Sailetik.

Genero-indarkeriaren aurkako ekintza-politika **lehentasun bilakatu da gobernu-ildoetan**, eta **apustu sendo**, halaber, **egungo gobernuaren proiektu politikoan**. Horri esker, giza ahalegin eta ahalegin ekonomiko handiak egin dira ezarritako helburuak iristeko.

#### EKINTZAK AURREKONTUZ HORNITZEA:

Planean aurreikusitako ekintzak egiteko aurrekontuak jartzea izan da Planaren garapenean lagundu duen beste funtsezko osagaietako bat.



# Kudeaketa-sistemaren ebaluazioa

## 3.1 Indarrak

Werecat275 | 13 | Placeholder on slide 66:

Bestalde, ekintza asko Sailen beren barne-aurrekontuekin egin ziren, eta hori ere positiboa da hein batean. Ekintza jakin bat martxan ipintzeko urtero aurrekontu bat ez onartu behar izateak biziki errazten du tamaina txikiko ekintzak egitea, eta, horrela, arindu egiten da haien garapena.

Sail barruko ekarpen txikien baturari esker, Planak garapen maila handi bat iristen du bere osotasunean.

### **SAILEN ARTEKO ETA ERAKUNDE ARTEKO KOORDINAZIOA:**

Inplikazio politikoaz eta ekonomikoaz gainera, Sail batzuen lankidetzak handia izan da mesedegarri.

Hasiera batean, bazirudien Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak berak hartu beharko zuela ekintzetako asko garatzeko ardura. Plana martxan jarri denean, ordea, ikusi da beste zuzendaritza eta sail batzuk ere inplikatzeko zirela, eta berenak balituzte bezala onartu dituzte helburuetako batzuk.

# Kudeaketa-sistemaren ebaluazioa

## 3.1 Indarrak

Werecat278 | 18 | Placeholder on slide 67:

Herrizaingo Saila eta Emakunde nabarmentzen dira haien artean, horiek eman baitute laguntzarik handiena ildo horretan.

Esparru askotan islatu da aipatu lankidetzak, baina hiru esparru nagusitu dira:

- Erakunde arteko II. Hitzarmena
  - Sail arteko Batzordea
- Alde biko harremanak (informalagoak)

lido horretan, esparru bakoitzaren funtzioak desberdinak izan dira.

Halere, esparruoi esker, **Sail guztiak inplikatzeari lortu da**; dela modu **formalean**, **Sailen arteko Batzordearen** kasua bezala; dela **era praktikoago batean**, **Erakunde arteko Hitzarmenean**, eta, nagusiki, **alde biko harremanak**, hortxe **gauzatzen baitira aipatu harremanok**.

#### TRESNEN EXISTENTZIA:

**Leihatila bakarra** tresna sortu izana nabarmendu behar da. Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza bera da haren arduraduna.

Datuen jarraipena eta bilketa egiteko tresna horren bitartez, Planeko ekintza zehatz batzuk betetzen dira, eta, gainera, arreta eskaintzen duen edozein esparrutatik genero-indarkeriaren biktimak jasotzen duen zerbitzua hobetzen eta optimizatzen da.

## Kudeaketa-sistemaren ebaluazioa

### 3.1 Indarrak

Werecat281 | 10 | Placeholder on slide 68:

Ertzaintza arriskuaren prebentzioko tresnen garapenean nabarmentzen da. Oso lagungarriak dira tresnok genero-indarkeriaren biktimei diren emakumeak babesteko.

**Etengabe aldatzen eta hobetzen ari diren tresnak eta protokoloak** erabiltzen dira. Kasu horietan inplikaturik dauden langile guztiengana zabaltzen dira **hobekuntzok**, etengabeko trebakuntzaren bitartez.

Gainera, beste segurtasun-indar eta -kidego batzuekin lankidetzan aritzeko tresnei esker, biktimei babesteko Plana EAETik harago ere ezar daiteke.

Osasun-laguntzako zerbitzuak ere **Osakidetzak garatutako sistema informatiko** bat ipini du martxan, zeregin horretarako izendatutako aurrekontu zehatz batekin: genero-indarkeriaren biktimei datuak biltzeko, eta biktimei zerbitzu hobe eta eraginkorragoa emateko.

Biktimei laguntzan Planak dituen helburuak iristen laguntzen du tresna horrek, eta mimitizatu egiten da Planeko ekintzetako batzuekin.

# Kudeaketa-sistemaren ebaluazioa

## 3.1 Indarrak

### DOKUMENTAZIO PROZESUA:

Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren I. Ekintza Planaren betetze- eta implementatze-prozesuan, berezitasun bat nabarmendu behar da: bada, une oro, ekintza gehienak dokumentatzeko eta justifikatzeko dinamika bat.

Hau da, martxan ipinitako (eta Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren I. Ekintza Planean aurreikusitako edo ez aurreikusitako) ia-ia ekintza guztiek badute beren garapena egiaztatzen eta azaltzen duen dokumentazioaren bermea. Horrek ere erraztu egiten du Plana bera ebaluatzea.

Ilido horretan, aitortu beharra dago Plana betetzen lagundu duten erakundeek ahalegin handia egin dutela ekintza bakoitza aberasteko dokumentazioa eskaintzen.

# Kudeaketa-sistemaren ebaluazioa

## 3.1 Indarrak

Werecat287 | 15 | Placeholder on slide 70:

Atal honetan, Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren I. Ekintza Plan ezartzean aurkitutako oztopo nagusiak aztertuko dira.

### SENTSIBILIZAZIO DEFIZITA:

Erakundeek aitortzen dute dezente hobe daitezkeela, oraindik ere, esku hartzeko sistemetako langileen **kontzientzia** eta **sentsibilizazioa**.

Horrek mantsotu egiten du biktimen laguntzako neurriak eta hobekuntzak ezartzea, eta, beraz, Gobernuaren Ekintza Planeko ekintzak ezartzea.

*«Ertzaintzan, bide luzea dago egiteko oraindik; sentsibilizazio-lana egiten ahalegindu behar da»*

*«Beste nazionalitate batzuetako biktimekiko sentsibilizazioa askoz apalagoa da»*

### ESKUMENEN BERRANTOLAKETA:

Zuzendaritza berri bat martxan ipinita, eskumenak berregokitu beharra sortu da. Horrek ohitzeko denbora bat eskatzen du, erakunde guztiei esleitu zaizkien funtzioak osoki betetzeko. Koordinazio-lanak ere jaso duke egokitze-behar horren eraginik.

## Kudeaketa-sistemaren ebaluazioa

### 3.2. Oztopoak

Egoera horren erruz, batzuetan teilakatze batzuk gertatzen dira esku-hartzean, eta gaitasun txikiagoa izaten da beharrezko gaietan gogor sakontzeko.

Hala, ikusi da ekintza batzuek garapen eta betetze mantsoagoa eta bihurriagoa izan dutela, «iruditurik» haiek inplementatzea beste erakunde/zuzendaritza bati zegokiola.

## Kudeaketa-sistemaren ebaluazioa

### 3.2. Oztopoak

Werecat293 | 19 | Placeholder on slide 72:

#### BARNE KOMUNIKAZIOKO DEFIZITA:

Egoera batzuegatik, ez dira behar adina aprobetxatzen baliabideak, eta uste izaten da Plana ez dela betetzen ari. Beste sail batzuekiko komunikaziorik ezagatik gertatzen da hori. Izan ere, baliteke Planaren helburuak iristeko ekintza baliotsuak egiten aritzea sailok, baina Zuzendaritzak deus ez jakitea.

*«Beste sail batzuetan, batzuek ez dakite zer den Plana edo hura denik ere»*

#### MOTELTASUNA PROZESUETAN:

Prozesu batzuk abiatzean izan den moteltasuna da Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren I. Ekintza Planaren garapena oztopatzen duen beste osagaietako bat.

Zenbaitetan, aurreikusten da halako epe batean jarriko direla martxan ekintza batzuk; nola oso mantso onartzen eta inplementatzen diren, ordea, ezinezkoa izaten da helburuak benetan iristea.

*«Behatokia onartu da, baina ez da martxan ipini oraindik»*

## Kudeaketa-sistemaren ebaluazioa

### 3.2. Oztopoak

Werecat296 | 10 | Placeholder on slide 73:

#### LORPENAK IKUSARAZTEKO ZAILTASUNA:

Antza denez, ez da erraza Planak iritsitako lorpenak eta aurrerabideak ikusaraztea eta beste Sail batzuei edo Administrazioetik harago jakinaraztea.

Zailtasunak dira Planaren emaitzak ezagutarazteko eta aitorten-prozesu bat pizteko, eta horrek desmotibazioa sortzen du Plana bultzatzean eta garatzean.

*«Ez da ageri egindakoa»*

## Kudeaketa-sistemaren ebaluazioa

### 3.2. Oztopoak

## Kudeaketa-sistemaren ebaluazioa

#### Indarrak

Bada borondate eta inplikazio politiko sendo bat emakumeen aurkako indarkeria matxistaren aurkako borrokari dagokionez.

#### Indartu beharreko osagaiak

Interes politikoa aitortzea eta ikusaraztea

Planear aurreikusitako ekintzetako askok badute aurrekontu bat esleituta, eta horrek lagundu egiten du haiek betetzen.

Ekintzak aurrekontuz hornitzeko beharra ikusaraztea eta nabarmentzea

Sail arteko eta erakunde arteko lankidetzak eta koordinazio-egiturek eta mekanismoek egoki funtzionatzen dute.

Protagonismo handiagoa ematea egun diren koordinazio-egiturei.

Planak tresna erabilgarri eta eraginkorrak ditu, bai emakumeen aurkako indarkeria matxistaren errealitatea ezagutzeko, bai egindako esku-hartzearen kudeaketarako eta jarraipenerako.

Tresnen erabilera hedatzea, eta hobekuntza- eta kalitate-prozesuak sartzea haien eguneratzean.

Planaren kudeaketa-sistemak egindako lana egiaztatzeko eta justifikatzeko prozesu bat du barnean, ekintzak betetzean sortzen den dokumentazioaren bitartez.

Jardunbide egokien banku bat sortzea

### 3.3 Kontrol-koadroa eta hobekuntza-elementuak

## Kudeaketa-sistemaren ebaluazioa

Defizit handia sentsibilizazioan eta kontzientzian

#### SENSIBILIZAZIO PROZESUAK ERRAZTEA

Bereziki genero-indarkeriaren biktimei zuzeneko laguntza ematen dieten profesionalen artean. Komenigarri litzateke arreta handiagoa eskaintzea haien kontzientziazioari.

Plana inplementatzen lagunduko luke, eragileek izango luketen inplikazio handiagoagatik.

Eskumenen berrantolaketa

#### KOORDINAZIOA HANDITzea

Honako hauek izan behar ditu laguntzaile eskumen-banaketa berriak: zereginen koordinazioan egindako ahalegina, eta Planeko helburuen eta programen betetzean inplikaturako erakunde bakoitzaren zeregina argitzea.

Barne-komunikazioko defizita

#### BARNE KOMUNIKAZIOKO PROZEDURA BAT

## **SORTZEA**

Barneko komunikazioa oso garrantzitsua da Plan bat behar bezala ezartzeko, zeren pertsona guztiek izan behar baitute helburuen, emaitzen, aurrerapenen eta alderdi estrategikoen jakitun. Zenbat eta ezagunagoa izan Plana erakunde baten barruan, orduan eta gogorrago saiaturiko dira harekin lotutako zereginak garatzeko ardura duten langileak. Alde horretatik, hausnartu beharra dago zer alderdi jakinarazi behar diren (mezuak), eta zer kanal erabil litezkeen horretarako (GIBLZren aldian behingo bilerak, web orria, komunikazio-gune gisa ere ari daitezkeen lan-taldeak, etab.).

Moteltasuna prozesuetan

## **EKINTZA ESTRATEGIKOAK LAGUNTZEA**

Funtsezkoa da ibilbide-orri bat edukitzea. Garatu beharreko esku-hartzeen lehentasunak ezartzen lagunduko digu hark, eta, hala, lehenbailehen eta/edo modu estrategikoan garatu beharrekoak susta eta bizkor daitezke.

Lorpenak ikusarazteko zailtasunak

## **BESTEEN AURRERAPENAK EZAGUTZEA:**

Planaren garapenean inplikaturako eragileek iritsitako aurrerapenak ezagutzeko, aldian behin elkarrekin biltzeko guneen eraginkortasuna eta errentagarritasuna handitzea komeni izango litzateke. Gune horietan aukera egongo litzateke genero-indarkeriaren aurkako borrokan esparru bakoitzean sortzen diren lorpenak eta zailtasunak elkarrekin aztertzeko. Horrela jokaturik, esperientziak partekatuko lirateke, eta helburu komun batekin egindako ahaleginak ikusiko.

Bestalde, ez dugu ahaztu behar herritarrei jakinarazi behar zaizkiela planifikazio mota honekin iritsitako aurrerapenak, eta, batez ere, publiko hartzaileak informatu behar direla.

## **3.3 Kontrol-koadroa eta hobekuntza-elementuak**